

# Soldata-igoera justu baten alde

# Prekarietaterik ez!

**ELA**

**DEUSTUKO  
UNIBERTSITATEA**

ATAL SINDIKALA / SECCIÓN Sindical

**ELAk Deustuko Unibertsitatean duen Atal Sindikaletik onartezina ikusten dugu  
DUko langileok bizi dugun erosteko ahalmenaren galera:**

- 2021-2022 ikasturteko **KPlaren igoera** %10,3koa izan zen EAEn, eta DUk egindako soldata-berrikuspena, berriz, %3,5-4 baino ez da izan.
- Aldiz, 2021-2022ko **emaitzen kontuak 3 milioi eurotik gorako irabaziak** ditu.
- **Irailean jasotako %2ko ordainsari bakar ez-finkagarriak** kontent utzi eta geldiarazi nahi izan du DUko soldata-igoera txikiak eragin duen ezinegona.
- **2012an onartutako hirurtekoak izozteak** ere eragina izan du **unibertsitateko langileen soldata-galeran**. Ildo horretan, aipatu beharrekoa da langile askok ez dutela karrerako planik eta profesionalki igotzeko aukerarik. Beraz, ez dute mekanismorik soldata hobetzeko. Gainera, lanbide-profil horiek dira, hain zuen ere, soldata prekarioenak dituzten lanpostuak betetzen dituztenak, eta, gainera, gehienak emakumeak dira.
- Hori duela **gutxi galduztako onura sozialen zerrendari gehitu behar zaio**, hala nola seme-alaben matrikula-hobariak (orain gauzazko soldatatzat hartzen dena), ezkontideen matrikula-hobariak (desagertu dena) edo errektore-aldaketagatiko aparteko ordainsaria, 2009ra arte kobratua (eta hori ere desagertu dena).

ELAko atal sindikaleko kide garenok denbora daramagu Unibertsitateko Zuzendaritzari elkarritzeta-mahai bat eskatzen, pairatzen ari garen erosteko ahalmenaren galerari irtenbidea bilatzeko. Orain arte, **Zuzendaritzak ez du mahai negoziatzailea deitu**, eta guk ezin dugu egoera hori onartzen jarraitu. Horregatik guztiagatik, aurrera pauso bat gehiago emateko beharra ikusten dugu. Dei egiten diegu langileei zuen babesak eskatzeko eta egoera honen aurrean indarrak batzeko.

**Guztioin indarra funtsezkoa da  
gure lan-baldintzak defendatzeko!**



**Aktibatu Lortu Zaindu**

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

# Por una subida salarial justa

# ¡No a la Precariedad!

**ELA**

**DEUSTUKO  
UNIBERTSITATEA**

ATAL SINDIKALA / SECCIÓN Sindical

***ELAk Deustuko Unibertsitatean duen Atal Sindikaletik onartezina ikusten dugu  
DUko langileok bizi dugun erosteko ahalmenaren galera:***

- **La subida del IPC** en el curso 2021-2022 fue del 10,3% en la CAPV, mientras que la revisión salarial realizada por la UD ha sido sólo de un 3,5 - 4%.
- En cambio, **la cuenta de resultados** de 2021-2022 arroja un **beneficio de más de 3 M€**.
- **La paga única no consolidable del 2%** recibida en septiembre ha pretendido contener y frenar el malestar que ha provocado la ínfima subida salarial.
- **La congelación de los trienios aprobada en 2012** incide también en la pérdida salarial. A este respecto, se ha de destacar que un **amplio número de personas trabajadoras de la universidad no cuentan con un plan de carrera** y que, por ello, no tienen posibilidad de promocionarse profesionalmente. Así pues, carecen de mecanismos para mejorar su retribución salarial. Además, esos perfiles profesionales son precisamente los que ocupan puestos con sueldos más precarios, coincidiendo además con que los ocupan mayoritariamente mujeres.
- Esto se une a la **lista de beneficios sociales perdidos recientemente**, como las bonificaciones de matrícula de hijos/as (que ahora se considera un “salario en especie”), las bonificaciones de matrícula de cónyuges (que ha desaparecido) o la paga extraordinaria por el cambio de Rector, cobrada hasta 2009 (y que también ha desaparecido).

Las personas que formamos parte de la sección sindical de ELA llevamos tiempo solicitando a la Dirección de la Universidad una mesa de diálogo para buscar una solución a la pérdida de poder adquisitivo que venimos sufriendo. Hasta ahora, la **Dirección no ha convocado esa mesa de negociación** y nosotras/os no podemos seguir aceptando esta situación. Por todo ello, vemos la necesidad de dar un paso más al frente. Hacemos un llamamiento a las personas trabajadoras para pediros vuestro apoyo y unir fuerzas frente a esta situación.

**La fuerza de todas y todos es fundamental para la defensa de nuestras condiciones laborales!**



**Aktibatu Lortu Zaindu**

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA